

PLAZA ECOFRIENDLY

1.- Balorezko proposamenak

Nobedadea ekarriko luke: gure ingurunean ez dira honelako proiekturik gauzatzen, eta berritasun bat izango litzateke biztanleriarentzat egunero produktu hauek eskura edukitzea.

Prestazioak biztanleriaren elikadura hobetuko luke, baita berotegi efektua geldiarazteko lagunduko luke. Produktuak ekologikoak dira, plastikorik erabili gabe (poltsarik ez da emango), haragi mota batzuk saihestu egingo dira, eta horrez gain, kilometro 0 produktuak eskeiniko genituzke.

Pertsonalizazioa: plaza berdinean hainbat denda desberdin egongo lirateke, eta ondorioz, pertsonen, aukeratzeko modua edukiko lukete.

Lana erraztea: pertsonen ez lukete produktu naturalen bila egon beharko supermerkatuetan, bertan dena naturala izango litzatekeelako, eremu berberaren barruan.

Marka/statusa: herrian zerbait berria denez, ospe handia bereganatuko luke, kasu honetan gaur egun hain garrantzitsua den arlo bati, mundua zaintzeari, aportatzen diolako. Beste hainbat herrirentzat ere, eredu izango litzateke.

Arriskua murriztea: erositako produktuak kalitatezkoak izango lirateke eta osasunerako onuragarriak. Gaixotasunak eta ingurumen arazoak gutxituko lirateke. Errepide bidezko desplazamenduak murriztuko dituenek, trafiko arriskuak ere murriztuko lituzke.

Eskuragarritasuna: herriko biztanleentzako oso eskura egongo litzateke, plaza batean kokatuta egongo litzatekeelako, herrigunean bertan.